

1/22

irizpena

EAEn Aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jardura antolatu eta gainbegiratzeari buruzko

Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2022ko urtarrilaren 14a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 1/22

I.- AURREKARIAK

2021eko abenduaren 20an Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ekonomia eta Ogasun Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, EAEn Aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera antolatu eta gainbegiratzeari buruzko Dekretu Proiektuari buruzko txostena eskatu zuten, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dekretuaren helburua aseguruaren eta berraseguruaren hornitzaileen jardueraren erregistroa, kontrola eta zehapen prozedura arautzea da, betiere berrikuspen eta antolamendu eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarena baldin bada.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Kontseiluko Batzordeko kide guztiei haiek proposamenak eta iritzia emateko eta horiek, aldi berean, zegokion Lan Batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araubidean ezarritakoarekin bat. 2022ko urtarrilaren 10ean Ekonomia Garapeneko Batzordea bildu zen eta hartutako erabaketan oinarrituta Irizpen Proiektu hau sortu zen. Ondoren, Kontseiluaren Osoko Bilkurara eraman zen eta hilaren 14an aho batez onetsi zuten.

II.- EDUKIA

Dekretuak azalpenen zatia, 5 kapitulutan banatutako 15 artikulua eta 3 azken xedapen ditu.

Zioen azalpenean haxe adierazten da: 3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, premiazko neurriena, eta Espainiako ordenamendu juridikoan Europar Batasuneko zenbait zuzentarau sartzen dituen sektore jakin batzuetako kontratazio publikoaren esparruan; aseguru pribatuetako sektorea, pentsio planena eta funtsena, zerga arlokoa eta zerga auzietakoa. Horren bitartez ordezkutzen da aseguru bitartekaritzako indarreko araubidea (Aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekaritzako uztailaren 17ko 26/2006 Legea) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren aseguruaren banaketari buruzko 2016ko urtarrilaren 20ko 2016/97 Zuzentarauaren (EB) bidez sartutako berritasunak jasotzeko; eta lege horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoaren administrazioak gauzatzen duen egungo berrikuspen araubideari eragiten dio.

Aurreikusi denaren arabera, antolamendu eta berrikuspen eskumenak beraien gain hartu dituzten autonomia erkidegoek dagokion aseguru eta berraseguru banatzaileen administrazio erregistroa eramango dute eta beraien jarduerak hasi aurretik bertan erregistratu beharko dira aseguru bitartekariak, aseguru bitartekari osagarriak eta berraseguru artekariak.

Halaber, aipatzen da EAEn aseguruak banatzeko jardueraren baimen eta kontrol eskumenak Ekonomia eta Ogasun Sailak dituela esleituta.

Aipatzen da Dekretuaren helburua estatuko aseguruaren banaketaren oinarritzko araudia EAeko administrazioaren antolamendu berezitasunetara egokitzea dela autonomia erkidego horretan, eta bereziki jarduera hasi aurretik inskribatu beharko diren EAeko aseguru eta berraseguru banatzaileen administrazio erregistroa eramateari eta horren administrazio kontrolari dagokionez. Horrez gain, kontabilitate betebeharrak eta estatistika-kontabilitateari, negozioari eta pertsona eta erakunde banatzaileen gaitasun profesionalari buruzko informazioa aseguru berrikuspenera esleituta duen organoari bidaltzeko betebeharrak zehazten dira.

Halaber betebeharrak hau ezartzen da: autonomia erkidegoko erregistroan inskribatzeko eskariak eta

estatistika eta kontabilitate deklarazioaren bidalketak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira.

Xedapen multzoa

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

2. artikulua.- Prozedura telematikoak eta baldintza teknikoak.

3. artikulua.- Aseguru bitartekarien elkargoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru bitartekarien elkargoen kontseilua

II. KAPITULUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ASEGURU ETA BERRASEGURU BANATZAILEEN ERREGISTROA.

4. artikulua.- Izaera eta xedea.

5. artikulua.- Erregistratu beharreko edukia.

6. artikulua.- Inskribatzeko baldintzak.

7. artikulua.- Eskaria eta ebazpena

8. artikulua.- Izen-ematea ezeztatzea.

9. artikulua.- Hedapena eta publizitatea.

III. KAPITULUA KONTABILITATE ETA INFORMAZIO BETEBEHARRAK

10. artikulua.- Betebeharra duten subjektuak eta bidalketa epeak.

11. artikulua.- Estatistika eta kontabilitate informazioa bidaltzeko modua:

IV. KAPITULUA GATAZKAK EBAZTEKO MEKANISMOAK

12. artikulua.- Bezeroei arreta emateko saila edo zerbitzua.

13. artikulua.- Bezeroen defendatzailea.

V. KAPITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA

14. artikulua.- Zehapen prozedura.

15. artikulua.- Zehapenen arloko eskumena.

AZKEN LEHENENGO XEDAPENA. Dekretua garatzeko baimena.

AZKEN BIGARREN XEDAPENA. Aplikatu beharreko araudia

AZKEN BIGARREN XEDAPENA. Indarrean jartzea.

III.- GOGOETAK

Otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren bigarren liburuaren I. tituluak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urtarrilaren 20ko aseguru banaketari buruzko 2016/97 Zuzentaraua ordezkatzeko du¹, eta modu horretan, aseguru bitartekaritzaren arloan indarrean dagoen araubidea ordezkatzeko du (aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekaritzaren uztailaren 17ko 26/2006 Legea) eta legean jasotako alderdiak eta printzipioak nabarmenki aldatzen ditu eta legean jaso gabeko bestelako alderdi berriak sartzen ditu.

Zehazki, sakonago arautu dira aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jardueraren sarbide eta egikaritze betekizunak, berariaz gehitu da aseguru osagarrien bitartekariaren figura eta zehapenen araubidea indartu da. Aurreko guztiak Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioak gauzatzen duen egungo berrikuspen araubideari eragiten dio.

Halaber, aipatu dugun moduan, Errege Lege Dekretuak aurreikusten du antolamendu eta berrikuspen eskumenak beraien gain hartu dituzten autonomia erkidegoek eramango dutela dagokion aseguru eta berraseguru banatzaileen administrazio erregistroa.

Aipatutakoa kontuan hartuta eta kontsultatu zaigun arau proiektuaren edukia aztertu eta gero, kontseilu honek uste du beharrezkoa eta egokia dela, baina hala ere, honako oharrak azaldu nahi ditugu.

III.1.- GOGOETA OROKORRA

Gure ustez, nahasgarria da banatzailea eta bitartekaria kontzeptuak batzuetan sinonimo gisa eta besteetan kontzeptu ezberdin gisa erabiltzea. Horregatik, definizioen artikulua bat gehitzea proposatzen dugu otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren definizioen 128. artikuluan jasotakoari jarraikiz, eta testu osoaren terminologia berrikusi beharko litzateke baita ere.

III.2.- GOGOETA BEREZIAK

“1. artikulua. Xedea” artikulua ondoan definizioen artikulua bat gehitzea.

Bere edukia otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren 128. artikuluaekin bat egongo da.

2. artikulua. Prozedura telematikoak eta baldintza teknikoak

1.apartatua haxe gehitzea proposatzen dugu (letra lodiz nabarmendu da):

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru eta berraseguru banatzaileen administrazio erregistroan izena eman behar duten banatzaile guztiek, bai pertsona fisikoek, bai juridikoek, aurrerantzean **bereizi gabe** Erregistroa, eskariak telematikoki aurkeztu beharko dituzte eta derrigortuta dauden estatistika eta kontabilitate informazioa bidali beharko dute. Horretarako, une bakoitzean Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio elektronikoan eskuduna den organoak erabilgarri jarriko dituen prozedura elektronikoak erabiliko dituzte.

¹ Bigarren liburua. Espainiako zuzenbidea Europar Batasunaren aseguru pribatuen eta pentsio planen eta funtsen araudira egokitzeko neurriak.

I. tituluak. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren aseguru banaketari buruzko 2016ko urtarrilaren 20ko 2016/97 Zuzentaraua (EB) ordezkatzeko.

II. tituluak. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 Zuzentaraua (EB), enpleguko pentsio funtsen jarduerari eta berrikuspenari buruzkoa, partzialki ordezkatzeko.

III. tituluak. Aseguru eta berraseguru erakundeen antolamenduari, berrikuspenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legea aldatzeko.

Justifikazioa: dekretuan ondoren "Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru eta berraseguru banatzaileen administrazio erregistroa" formula erabiltzen da berriz ere (II. kapitulua eta 4. artikulua).

4. artikulua. Izaera eta xedea

2. apartatuan haxe adierazten da (testua jaso dugu ondoren estatu araudiarekin alderatzeko):

*"2.- Jarduerak hasi aurretik (horiek osagarri gisa egin arren baita ere) erregistroan izena eman beharko dute honako aseguru banatzaileek: lotutako aseguru agenteak, lotutako banku aseguruaren operadoreak, aseguru artekariak, berraseguru artekariak, **aseguru eskusiboen agenteak eta banku aseguru eskusiboen operadoreak**, baldin eta haien egoitza eta eragiketa eremu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldera mugatzen bada, aplikatzekoa den estatuko oinarrizko araudian ezarritako baldintzen arabera.*

Aseguru eskusiboetako agenteei eta banku aseguru eskusiboetako operadoreei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio beraien gaineko eskumenak egikaritzea, betiere zerbitzuak ematen dituzten aseguru erakundea autonomia erkidego honek kontrolatzen eta berrikusten badu, Aseguru eta berraseguru entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 19. artikuluan edo ordezkatzan duen bestelako batean ezarritakoarekin bat".

3/2020 Errege Lege Dekretuaren 132. artikulua haxe dio hitzez hitz horri buruz (testua jaso dugu, errazago uler dadin):

"132. artikulua Eskumenak banatzea.

(...)

*2. Autonomia estatutuen arabera aseguruaren antolamenduan eskumenak bereganatu dituzten autonomia erkidegoek honako hauen gaineko eskumenak izango dituzte: lotutako aseguru agenteak, banku aseguruaren operadoreak, aseguru artekariak, berraseguru artekariak eta aseguru bitartekariaren **elkaragoak**, betiere haien egoitza eta eragiketa eremua autonomia erkidegora mugatzen badira. Eskumen horiek irizpide hauekin bat egikarituko dira:*

(...)

3. Aseguru eskusiboetako agenteei eta banku aseguru eskusiboetako operadoreei dagokienez, autonomia erkidegoei dagokie beraien gaineko eskumenak egikaritzea, betiere zerbitzuak ematen dituzten aseguru erakundea dagokion autonomia erkidegoak kontrolatzen eta berrikusten badu, uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 19. artikuluan ezarritakoarekin bat".

Bestalde, Aseguru eta berraseguru entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 19. artikuluan haxe zehazten da (testuan nabarmendu da autonomia erkidegoen eskumen arloa):

"19. artikulua Eskumen banaketa.

*1. Beren autonomia estatutuei jarraituz aseguru eta berraseguru entitateen antolamendu eskumenak bere egin dituzten autonomia erkidegoek entitate horien gaineko eskumena ere izango dute, autonomia erkidego horren lurraldera mugatzen badira haien egoitza soziala, jarduketa eremua edo **aseguratzan duten arriskuaren kokapena, bizitza aseguruak ez badira, eta konpromisoak bere egitea,***

bizitza aseguruak badira.Irizpide hauei jarraituko zaie:

(...).”

Azken finean, egoitza eta eragiketa eremu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan mugatuta duten **agente eskusiboak eta bankuko operadore eskusiboak erregistroan derrigorrez erregistratu beharri buruzko erreferentzia badirudi ez dela zuzena:**

- a) Izan ere, **3/2020 Errege Lege Dekretuaren 132. artikuluan ez dira aipatzen** aseguru antolamenduan eskumenak jaso dituzten **autonomia erkidegoek eskumenak dituzten banatzaileen artean**, baldin eta banatzaile horien egoitza eta eragiketa eremua autonomia erkidegora mugatuta badago; eta
- b) **Banku aseguru eskusiboetako operadoreen konexio puntua ez delako bakarrik egoitza eta eragiketa eremu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan mugatuta egotea. Horrez gain**, aseguru erakundea kontrolatu eta berrikusi behar du Euskal Autonomia Erkidegoak 20/2015 Legearen 19. artikuluekin bat (**egoitza soziala, eragiketa eremua eta arriskuen kokapena - bizitza aseguruak ez diren aseguruaren kasuan edo konpromisoak hartzea bizi aseguruaren kasuandagokion autonomia erkidegoaren lurraldean mugatuta duten erakundeak**).

Horregatik, 2. apartatuan azpimarratutakoa ezabatzea eta letra lodiz jasotakoa gehitzea proposatzen dugu:

“2.- Jarduerak hasi aurretik (horiek osagarri gisa egin arren baita ere) erregistroan izena eman beharko dute honako aseguru banatzaileek: lotutako aseguru agenteak, lotutako banku aseguruaren operadoreak, aseguru artekariak, berraseguru artekariak, aseguru eskusiboen agenteak eta banku aseguru eskusiboen operadoreak, baldin eta haien egoitza eta eragiketa eremu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldera mugatzen bada, aplikatzekoa den estatuko oinarritzko araudian ezarritako baldintzen arabera.

*Aseguru eskusiboetako agenteei eta banku aseguru eskusiboetako operadoreei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio beraien gaineko eskumenak egikaritzea, betiere zerbitzuak ematen dituzten aseguru erakundea autonomia erkidego honek kontrolatzen eta berrikusten badu, **Aseguru eta berraseguru entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 19. artikuluan edo ordezkatzan duen bestelako batean ezarritakoarekin bat**”.*

Beraz, testua honela geratuko da:

2.- Jarduerak hasi aurretik (horiek osagarri gisa egin arren baita ere) erregistroan izena eman beharko dute honako aseguru banatzaileek: lotutako aseguru agenteak, lotutako banku aseguruaren operadoreak, aseguru artekariak eta berraseguru artekariak, baldin eta haien egoitza eta eragiketa eremu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldera mugatzen bada, aplikatzekoa den estatuko oinarritzko araudian ezarritako baldintzen arabera.

Aseguru eskusiboetako agenteei eta banku aseguru eskusiboetako operadoreei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio beraien gaineko eskumenak egikaritzea, betiere zerbitzuak ematen dituzten aseguru erakundea autonomia erkidego honek kontrolatzen eta berrikusten badu, Aseguru eta berraseguru entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 19. artikuluan ezarritakoarekin bat”.

5. artikulua. Idatzi beharreko edukia

1.c) puntuan akats bat dago, errepikatuta dago “edo nortasun agiri nazionalaren zenbakia ” esaldia, eta horregatik, ezabatzea proposatzen dugu.

7. artikulua. Eskaria eta ebazpena

2. paragrafoan haxe adierazten da (testua jaso dugu ondoren estatu araudiarekin alderatzeko):

Ondorio horretarako, helbide horretara bidali behar dituzte agiriak, datuak eta gainerako informazioa aplikatzekoa den estatu araudian zehaztutako moduan eta epeetan, eta albo batera utzi gabe egiten zaizkien informazio eskakizun individualizatuei erantzun beharra. Horrez gain, erregistroan inskribatutako artekariak eta lotutako agenteak kontabilitate betebeharren araubidea ere beteko dute eta urtean behin informazio betebeharra bete beharko dute.

Erreferentzia ez dago osatuta, izan ere, informazio hori banku-aseguru operadoreek ere bete egin behar dute (guztiak, lotutakoak eta eskusiboak), 3/2020 Errege Lege Dekretuaren 187. artikuluan ezarritakoarekin bat (testuan nabarmendu da):

“187. artikulua Kontabilitate betebeharrak eta estatistika-kontabilitate informazioa eman beharra.

(...)

2. Aseguru eta berraseguru banaketa jarduera hasi ondoren, lotutako aseguru agenteak, banku aseguruaren operadoreak, aseguru artekariak eta berraseguru artekariak Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusira bidali beharko dute estatistika-kontabilitate informazioa araubidez ezarritako eduki eta maiztasunarekin bat.(...)”

Antzekoa dago jasota Aseguru eta berraseguru banatzaileen prestakuntzari eta estatistika-kontabilitate informazioa bidaltzeari buruzko apirilaren 20ko 287/2021 Errege Dekretuaren 17. artikuluan (testuan nabarmendu da baita ere):

“17. artikulua Aseguru artekariak, berraseguru artekariak, lotutako aseguru agenteak eta banku aseguruaren operadoreen betebeharrak komunak.

1. Bidali beharreko estatistika-kontabilitate informazioa kontuan hartzeko ekitaldi ekonomikoa bat etorriko da urte naturalarekin

(...)

3. Kapitulu honetan araututako informazio betebeharra izango dute aseguru artekariak, berraseguru artekariak, lotutako aseguru agenteak eta banku aseguruaren operadore guztiak eta bitartekaritza jarduera gauzatu duten aldi guztietako informazioa bidali beharko dute, albo batera utzita noiz ezeztatu den aseguru eta berraseguru banatzaileen administrazio erregistroko izen-ematea.

(...)”.

Beraz, 7. artikuluko 2 in fine paragrafoan azpimarratutakoa ezabatzea eta letra lodiz eta etzanda idatzitakoa gehitzea proposatzen dugu:

“...horrez gain, erregistroan izena eman duten lotutako agenteak, aseguru artekariak, berraseguru artekariak eta banku aseguruaren operadoreak urtero bete behar dituzten kontabilitate betebeharrak

eta informazio betebeharra arautzea”.

Beraz, testua honela geratuko da:

...horrez gain, erregistroan izena eman duten lotutako agenteek, aseguru artekariak, berraseguru artekariak eta banku aseguruaren operadoreek urtero bete behar dituzten kontabilitate betebeharrak eta informazio betebeharra arautzea.

10. artikulua. Betebeharra duten subjektuak eta bidalketa epeak.

2. apartatua “lotutakoak” ezabatzea proposatzen dugu, eta honela geratzea:

2.- Erregistroan izena eman duten aseguru eta berraseguru artekariak urteko estatistika-kontabilitate informazioa bidali beharko dute eta erregistro berean erregistratutako lotutako aseguru agenteek eta banku aseguruaren operadoreek urteko kontabilitate informazioa eta negozioaren informazioa baita ere, oinarritzko estatuko xedapenetan ezarritako edukiarekin.

Justifikazioa: termino zuzena “banku aseguruaren operadoreak” da, izan ere, urteko informazio ematearen betebeharra dute lotutako banku aseguruaren operadoreek eta operadore eskusiboek, aurretik aipatu moduan (3/2020 Errege Lege Dekretuaren 187. artikulua eta 287/2021 Errege Dekretuaren 17. artikulua, eta antzeko terminoetan 287/2021 Errege Lege Dekretuaren 21. eta 22. artikulua).

12. artikulua. Bezeroei arreta emateko saila edo zerbitzua.

- 1. apartatua. "Aseguru banatzaileak" kexak eta erreklamazioak erantzun eta ebazteko betebeharra dutela dioen aipamena ez da zuzena, izan ere, 3/2020 Errege Lege Dekretuaren 166. artikulua haxe xedatzen du (nabarmendu nahi dena azpimarratu da):

"Aseguru entitateak, aseguru artekariak, aseguru bitartekariak Espainiako sukurtsalak eta beste estatu kide batzuetako bitartekariak, Espainian zerbitzuak libreki emateko araubidean jarduten badute, behartuta daude legitimazioa duten subjektuek egiten dituzten kexak eta erreklamazioak erantzutera eta ebaztera, 1. tituluan eta finantza zerbitzuen bezeroa babesteko araudian ezarritakoaren arabera".

Ondorioz, xedapen hori mantendu nahi bada, 1. apartatua Euskal Autonomia Erkidegoak kontrolatu eta berrikusten dituen aseguru bitartekarietara mugatu beharko litzateke, eta horregatik, banatzaileak ezabatzea eta artekariak jartzea proposatzen dugu, honela:

1.- Erregistroan izena eman duten aseguru artekariak legitimatutako subjektuek egiten dituzten kexak eta erreklamazioak erantzun eta ebatzi behar dituzte, estatuko oinarritzko eta finantza zerbitzuen bezeroen babesaren araudian ezarritakoarekin bat.

- 2. apartatua. “Aseguru erakundeei” eragiten dien betebeharra dagoela dioen erreferentzia generikoa ez da zuzena. 20/2015 Legearen 19. artikuluan ezarritakoarekin bat, bakarrik EAEk kontrolatzen eta berrikusten dituen aseguru erakundeei egin beharko litzateke erreferentzia (nabarmendu nahi dena azpimarratu da).

19. artikulua. Eskumen banaketa.

1. Beren autonomia estatutuei jarraituz aseguru eta berraseguru entitateen antolamendu eskumenak bere egin dituzten autonomia erkidegoek entitate horien gaineko eskumena ere

izango dute, autonomia erkidego horren lurraldera mugatzen badira haien egoitza soziala, jardute eremua edo aseguratzen duten arriskuaren kokapena, bizitza aseguruak ez badira, eta konpromisoak bere egitea, bizitza aseguruak badira. Irizpide hauei jarraituko zaie:

(...)”

Beraz, xedapen hori mantendu nahi bada, hauxe gehitzea proposatzen dugu (letra lodiz nabarmendu da):

*“2.- Autonomia Erkidegoak kontrolatzen eta kudeatzen dituen aseguru erakundeen bezeroen arretarako sail eta zerbitzuek, **Aseguru eta berraseguru entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 19. artikuluan ezarritakoarekin bat**, lotutako agenteen jarduketari buruz aurkezten diren kexak eta erreklamazioak erantzun eta ebatziko dituzte, finantza zerbitzuen bezeroak babesteko araudian ezarritako baldintzekin bat”.*

Beraz, testua honela geratuko da:

“2.- Autonomia Erkidegoak kontrolatzen eta kudeatzen dituen aseguru erakundeen bezeroen arretarako sail eta zerbitzuek, Aseguru eta berraseguru entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 19. artikuluan ezarritakoarekin bat, lotutako agenteen jarduketari buruz aurkezten diren kexak eta erreklamazioak erantzun eta ebatziko dituzte, finantza zerbitzuen bezeroak babesteko araudian ezarritako baldintzekin bat.

- 3. apartatuan (“ahalko dute”) erreferentzia erregistroan izena eman duten aseguru artekarietara mugatu beharko zaie (3/2020 Errege Lege Dekretuaren 166. artikuluekin lotuta 1. apartatuarentzat aipatutakoari jarraikiz). Beraz, letra lodiz nabarmendutakoa gehitzea proposatzen dugu:

*“3.- Ondorio horietarako, **erregistroan izena eman duten aseguru artekarietara** kanpoan kontratatu ahal izango dute bezeroei arreta emateko sailaren edo zerbitzuaren zereginen egikaritzea, hau da, erakundearen egituratik kanpoko pertsona edo erakunde bati, betiere finantza zerbitzuen bezeroak babesteko araudiaren baldintzak betetzen baditu.*

Beraz, testua honela geratuko da:

3.- Ondorio horietarako, erregistroan izena eman duten aseguru artekarietara kanpoan kontratatu ahal izango dute bezeroei arreta emateko sailaren edo zerbitzuaren zereginen egikaritzea, hau da, erakundearen egituratik kanpoko pertsona edo erakunde bati, betiere finantza zerbitzuen bezeroak babesteko araudiaren baldintzak betetzen baditu.

14. artikulua. Zehapen prozedura

Testua zehatzagoa izateko, honakoa gehitzea proposatzen dugu (letra lodiz nabarmendu da):

3/2020 Errege Lege Dekretuan, otsailaren 4koan (premiazko neurriena, eta Espainiako ordenamendu juridikoan Europar Batasuneko zenbait zuzentarau sartzen dituen sektore jakin batzuetako kontratazio publikoaren esparruan; aseguru pribatuetako sektorea, pentsio planena eta

funtsena, zerga arlokoa eta zerga auzietakoa) jasotako zehapenak ezartzeko, zehapen ahala arautzen duten printzipioei jarraituko zaie, bai eta ahal hori egikaritzearen berri ematen dutenei ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Zehapen Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotzen den bezala”.

Azken lehenengo xedapena. Dekretua garatzeko baimena.

Testua zehatzagoa izateko, honakoa gehitzea proposatzen dugu (letra lodiz nabarmendu da):

Ekonomia eta Ogasun Sailaren titularrari ahala ematen zaio dekretu honetako xedapenak garatzeko, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko **aseguru eta berraseguru banatzaileen administrazio erregistroan jaso behar diren inguruabarretan egokitzat jotzen dituen aldaketak egiteko”.**

Azken hirugarren xedapena. Indarrean jartzea

Modu osagarrian araubide iragankor bat sartzea proposatzen dugu dekretuarengatik betebeharra duten subjektuak egokitzeko, eta beraz, araubide iragankorarekin bat, indarrean jartzeko epea aldatzea.

IV.- ONDORIOA

Euskadiko EGABen ustez egokia da **EAEn Aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera antolatu eta gainbegiratzeari buruzko** Dekretu Proiektua izapidetzea, kontsulta organo honek egindako oharrak kontuan hartuta.

Bilbon, 2022ko urtarrilaren 14an

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte